

Damaszio

Damaskon 470. urte inguruan jaioa, *neoplatonismoko atenar eskolarka: Bere aurrekoen aurka, ez du uste Bat-etik hasita gauza ororen hierarkia arrazoi bidez erator daitekeenik. Damaszio-ren ikasle izan zen Sinplizio, Atenako azken neoplatonikoa.

Dante Alighieri

Firenze-n 1265ean jaio eta Ravenna-n 1321ean hila, poeta filosoforik handienetakotzat hartzen da. Santayana-k dioenez, munduaren ikuspegi sobrenaturalista duten poeten artean bera dugu nagusi. Batzuk diote Dante-k Divina Comedia-n San Tomas Aquino-koaren filosofi ideiak poetikoki zabaldu zituela. Beste batzuk bien arteko desberdintasunak azpimarratzen dituzte eta biok ados datozen gauzak Erdi Aroko giroan kokatzen diren gauzak izango lirateke. Beste batzuk, oraindik, arabiarren pentsakerak Dante-ri izan zuten eragina azpimarratzen dute. Obra: Divina Comedia.

Dao (Tao)

Txina-ko mundu-ikuskerak klasiko eta tradizionalean funtsezko kontzeptua eta giltz-berba. Filosofi eskola konkretu bati (*daoismoari) izena eman badio ere, berba honen erabilera eta adiera askoz zabalagoa da; *konfuzianismoak ere bere sistemako kontzepturik nagusienetakoa berba honen bidez esaten du. Filosofi mailan txinatar *unibertsismoari lotua dago.

Eskola bakoitzak Dao-ren adiera desberdina du: Konfuzio moralista da, eta honek funtsean *Jen-arekin, printzipio moralarekin, berdintzen du Dao. Laozi-k eta honen daoismoak, berriz, Natura-rekin berdintzen dute Dao, edukin kosmologikoa emanez. Mozi-k (Motzu-k), azkenik, eta mohismoak, Zeru-arekin berdintzen du Dao, horren erlijiozko adiera nabarmenduz.

Hiru mailatan uler daiteke, bada, Dao:

1. Jatorriz eta adiera arruntez, bidea esan gura du. Eta hortik, printzipioa, *ordena kosmikoa. Sarritan, ordea, zera pertsonal eta bizidun bezala ulertzen da.

2. Konfuzianismoak edukin etikoa eman dio bereziki Dao-ri: Etika osoaren oinarria da, hain zuzen ere. Norbanakoaren, gizartearen, gobernatzaileraren edota Estatu osoaren *jokabide zuzena adierazten du, zeruak berak gizakiari ezarritakoa. Dao, beraz, joko-bide inmanentea da; baina bide hau nolabait markatuta dago; horregatik, Dao zera transzendentea da.

Alde honetatik badu *lege naturalarekin kidetaskun.

3. Daoismoarentzat kategoria metafisikoa da oinarri-oinarriari Dao. Munduaren eta bizitzaren ordena betierekoaren *printzipioa da, hain zuzen. Bera da izaki guztien jatorria, munduaren sorreraren printzipio aktiboaren (Yang-en) eta printzipio pasiboaren (*Yin-en) eta bizi-indarraren (*Chi-ren) gainetik dagoena.

Dao berezkoa da: gauza higikor eta anizkor guztien Batasun higiezina da. Dao-k ez du formarik, baina formadun izaki guztien jatorria da, eta formadun izaki guztien baitan dagoena.

Jainkoa bera baino ere lehenagokoa da Dao.

Laburbilduz, munduaren eta gizartearen eta izaki guztien ordena unibertsala adierazten du. Horren baitan gertatzen da Yang-en eta Yin-en arteko sintesia ere.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Daoismoa.

Daoismoa (Taoismoa)

Txina-ko filosofi eta erlijio-sistema edo eskola handietako bat, *konfuzianismoarekin batera, eta honen kontrakoa hainbat puntutan. *Laozi ezagutu ohi da daoismoaren eraikitzailetzat, oinarritzko liburu nagusia, Dao De King ("Bertute-bidearen liburua") izenekoa berari egozten bait zaio. Konfuzio-ren garaikotzat jotzen da; baina benetan ez da horren bizitzaz ezer ezagutzen. Horregatik, daoismoaren eraikitzaile historiko eta bigarren maisu nagusitzat Zhuangzi (Chuang Tzu) hartzen da, K.a. IV. mendekoa berau.

Daoismoaren metafisikaren oinarritzko kontzeptua *Dao da (honetatik du bere izena ere). Dao berezkoa eta transzendentea da, baina izaki guztien baitan dago. Munduaren kreazioaren funtsean dago, ez zuzeneko eragile bezala, eta bai horren printzipio egingorren (Yang-Yin printzipioen) oinarri bezala. Elkarren kontrako printzipio horien bitartez konkretatzen da Dao munduan; horregatik, munduak izaera polarra du.

Dao naturaren *ordena da; eta ordena hau ere bi printzipioen polartasunean gertatzen da.

Bi poloren arteko oreka norbere bizitzan zertzean datza gizakiaren gizatasuna eta jatorrasuna; naturaren ordenaren barruan bait dago gizakia ere, eta hori honentzako ispilua (bidea) da. Norberaren bizitza eta gizarte, Dao ("Bidea") errealtatearen barrutik bezala ordenatzean datza benetako *jakinduria.

Darsana

Jakinduriara iristeko bideak, berriz, izan daitezke: meditazioa, kontenplazioa, baita ariketa fisikoak eta disziplina moralak ere.

Naturaren bidea ez du gizakiak behartu behar, hortik ibili baizik. Eta hemen dator konfuzianismoaren eta daoismoaren arteko alde nagusietako bat, bereziki gizartearen gobernuari dagokionez.

Giza jokabide osoak berezkotasuna edo naturaltasuna behar du, bai norbere bizitzan eta bai gizartekoan. *Wuwei edo "ekinik eza da jokabide horren legea. Ez da natura (Dao) behartu behar lege eta arau gehiegirekin eta bortxaren bidez. Baina honen oinarria ez da geldotasun hutsa eta bai Dao-ren aurrez-aurreko menpekotasuna. Honela mundu sentikorreko bereizketak eta aniztasuna gaindituz, eta berezkotasun egokiaz artifizialtasuna uxatuz, Dao baitango batasunera eta harmoniara joko du gizakiak.

Neodaismoak, K.a. I. mendeaz gero, Wuwei edo "ekinik eza"ren etika landu eta sakondu du.

Paulo Agirrebaltzategi

Darsana

Sanskritoz, eritzia edo ikuspuntua adierazten du. India-ko filosofi sistema edo eskolei deitzen zaie horrela.

Sei eskola tradizional nagusi eta ortodoxo bereizten dira: Samkhya, Yoga, Nyaya, Vaishesika, Mimamsa eta Vedanta; eta hiru heterodoxo: budismoa, jainismoa eta txarvaka.

Ik. Indiar filosofia.

Darwin, Charles

Shrewsbury-n 1809an jaio eta Down-en (Kent) 1882an hildako natur ikertzaile ingelesa. Izaki bizidun guztien *eboluzioa bizitzagatik borrokatik datorrela baietsi zuen. Beraren ustez, moldatzen ez diren espezieak desagertu egiten dira; borroka horretan irabazten dutenek, berriz, munduan jarraitzen dute. Obrak: On the Origin of Species by Means of Natural Selection, 1859; The Descent of man and Selection in Relation to Sex (espainieraz itzul.: El origen de las especies, 2 tomo, 1959).

Ik. Eboluzioa; Eboluzionismoa.

Dasein-a

"Hor-izatea" alemanezko "dasein"aren euskarazko itzulpena da: aurrez aurre izatea, gogoak eman eta besterik gabeko beste edozeri kontrajarritz. *Heideger-en filosofian "Dasein" gizakia da, hau da, beronen

existentzia guztiz aparta, izatearen ulerpidea, norberaren hor-izatea erdiesten duena. Hain zuzen, gizaki edo "Dasein"aren esentzia edo zerizana ex-sistentzian datza.

Dasgupta, Surendranath

Calcuta-n jaio eta 1887-1952 urte bitartean bizi izandako filosofoa. Indiar filosofiaren historia zabal baten egilea. Indiar tradizioaren doktrinak eta Mendebaldeko zenbait eskola filosofiko bateratzen saiatu zen, *esperientziaren garrantzia azpimarratuz eta esperientzia mistikoa ere honen barruan kokatuz. Obrak: History of Indian Philosophy, 1922; Indian Idealism, 1933.

Ik. Indiar filosofia.

Dastamena

Ik. Gustua.

Datuak

1. Ikerketa zientifiko batean abiapuntu gisa erabiltzen diren eztabaida ezinezko *gertakariak eta *printzipioak dira.

2. Logikan, gertakariari deritze datu, zeintzuetatik *inferentziak lor baitaitezke; epistemologian, *adimenari eskaintzen zaion errealitatea da eta psikologian, berriz, *sentipenean ematen dena edo sentipenaren edukina.

Ik. Eman.

David Dinant-ekoa

Seguraski Britainian jaio eta 1200. urte inguruan bizi izandakoa. Dirudinez, Almariko Béne-koarengan eraginik izan zuen 1210ean kondanatuak izan ziren doktrina panteistan. Alberto Handiak eta San Tomas Aquino-koak esaten digutenez, Avicbron, Juan Escoto Eriugena eta, batez ere, Alexandro Afrodisia-koak egindako Aristotele-ren interpretaziotik jaso zituen David Dinant-ekoak bere ideiak. Beronen lanetatik gauza gutxi gordetzen da.

De (Te)

Dao unibertsala gizaki bakoitzarengan partikularitzen eta konkretatzen da, daoismoaren arabera. Gizabanakoan zertzen den Dao-k De izena hartzen du.

Gizakiak Dao unibertsala baitaratze horretan du oinarria, hain zuzen, daoismoak predikatzen duen wuwei edo berezkotasunak.

Horregatik, De berba bertute bezala ere itzuli ohi da; bertutearen jatorrizko esanahia du, ordea: hau da, barneko energia berrezkoarena.